

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2020 Foru Dekretua, uztailaren 28koa. Onestea uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren aldaketa

Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onartzen dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 49. artikulua hasierako idazketan, lau asteko iraupena ezarri zen amatasun edo aitatasun ez-haurdunaren baimenari dagokionez.

6/2018 Legeak, uztailaren 3koak, Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorrenak, bost astera luzatu zuen baimenaren iraupena.

6/2019 Dekretuak, martxoaren 1ekoak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina aldatu zuen, eta bederatzigarren xedapen iragankorra txertatu zuen. Hona hemen:

“Bederatzigarren xedapen iragankorra. Ama biologikoa ez den gurasoaren baimena pixkanaka pixkanaka aplikatzea enplegatu publikoentzat, Enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Ama biologikoa ez den gurasoaren baimenaren iraupena, jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioagatik, arau honen 49. artikulua c) letran aipatzen dena, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzkoak, xedatutakoari jarraiki, pixkanaka-pixkanaka luzatuko da, honela:

a) 2019an, baimena zortzi astekoa izango da; lehenengo bi asteak etenik gabekoak izango dira, eta jaiotza dataren, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren erabaki judizialaren edo adopzioa eratzekoa den erabaki judizialaren ondoz ondokoak. Gainerako sei asteen gozamina etenakoa izan ahalko da, bai amak nahitaez hartu beharreko atsedenaldiaren ondoko sei asteen ondoren, bai 49. artikulua a) eta b) ataletan jasotako baimenak edo jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatiko kontratuaren etetearen ondoren.

b) 2020an, baimena hamabi astekoa izango da; lehenengo lau asteak etenik gabekoak izango dira, eta jaiotza dataren, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren erabaki judizialaren edo adopzioa eratzekoa den erabaki judizialaren ondoz ondokoak. Gainerako zortzi asteen gozamina etenakoa izan ahalko da, bai amak nahitaez hartu beharreko atsedenaldiaren ondoko sei asteen ondoren, bai 49. artikulua a) eta b) ataletan jasotako baimenak edo jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatiko kontratuaren etetearen ondoren.

c) Azkenik, 2021ean, baimena hamasei astekoa izango da; lehenengo sei asteak etenik gabekoak izango dira, eta jaiotza dataren, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren erabaki judizialaren edo adopzioa eratzekoa den erabaki judizialaren ondoz ondokoak. Gainerako hamar asteen gozamina etenakoa izan ahalko da, bai amak nahitaez hartu beharreko atsedenaldiaren ondoko sei asteen ondoren, bai 49. artikulua a) eta b) ataletan jasotako baimenak edo jaiotza, adopzio, adopzio aurreko zaintza edo harreragatiko kontratuaren etetearen ondoren.

Legezko esparru horren arabera, baimenaren egungo iraupena hamabi astekoa da, eta hamasei astekoa izango da 2021. urtean.

Badirudi garrantzitsua dela ohartaraztea aitatasun baimena 16 astera hedatu zela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan 2019ko azaroaren 1etik aurrera izandako jaiotza guztientzat.

Aurreko oharraren ondorioz, egokia zirudien inguruko eremuarekin bat etorritzat jardutea eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean ere aitatasun edo amatasun ez-haurdunaren baimena 16 astera luzatzea, 2019ko azaroaren 1etik aurrera.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37. artikulua dioenez, honako gai hauek negoziatu beharko dira:

“m) Hauei dagozkienak: lan-egutegia, ordutegiak, lanaldiak, oporrak, baimenak, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, baita giza baliabideak estrategikoki planifikatzeko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzetan eragina duten alderdiei dagokienez.”

Sindikatuaren ordezkariekin negoziatu da.

2020ko martxoaren 14an, alarma egoera deklaratzeko ekarritako salbuespeneko egoeraren eraginez, baimenaren luzapena ezartzeko aurreikuspena atzeratu egin da, eta, beraz, nahiz eta indarrean jartzeko arau orokorra hura onartzen denetik aurrera aplikatu behar den, data horretatik aurrera aitortutako baimenei aplikatu behar dizkie ondorioak, baldin eta legez onetsitako 12 asteko baimenaren gehieneko iraupena agortu ez badute.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritzat, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurreziako fiskalizazioaren aldeko 595/2020 zenbakiko txostena.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneko eta Foru Administrazioaren diputatuaren proposamenez, eta Foru Aldundiko sailak zehazten dituen Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuan (uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuaren bidez aldatua) eta Diputatuaren Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuan –Funtzio Publikoaren arloko eskumena onartzen dituen– nahiz otsailaren 9ko 10/2016 Legean –Funtzio Publikoaren arloko eskumena daukan sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena– xedatzen denarekin bat etorritzat,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onartzen dituen uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 49. artikulua aldatzea, amatasun edo aitatasun ez-haurdunaren baimenari hamasei asteko iraupena ezartzeko.

Bigarrena. Aldaketa hori onartu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; nolana ere, 2020ko martxoaren 14tik aurrera onartutako baimenei aplikatu ahal izango zaie, baldin eta legez ezarritako 12 asteko gehieneko iraupena agortu ez badute.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA